

bidegileak



Aña Etxehandi (1935)

Egilea:

JOSEBA ETXARRI

Euskal amerikarra

San Frantziskoko euskalduna da Aña (Etxehandi) Iriartborde¹. Euskal Herrian sortua, emigrazioaren fenomenoaren betebeteetan bizi izan zuen bere belaunaldiko gehientsuenek bezala, gaur egun, hirurogeita hamar urteak pasaturik gibelera begiratzen duenean San Frantziskoko bere etxetik, bizitzako urte gehienak Estatu Batuetan iragan dituela konturatzten da, eta bertakoak dituela semea eta bilobak. Izan ere familia euskal amerikarra da berea: bera eta bere senarra zena, Ganix, Nafarroa Beherean sortu



Aña Etxehandi Iriartborde (1935)

euskaldunak; semea, Robert, etxean euskara baizik ezagutu ez zuen San Frantziskon sortu euskalduna; eta biloba Gene eta René, haurrak oraino, San Frantziskoko Euskal Etxearen magalean dabiliz bi *Basque American* neska-mutiko dira. Euskal izateak zinez hunkitu duen familia kaliforniarra dira Iriartbordetarrak.

¹ Sortzez Etxehandi (Etchehandy), Añak 1962an Ganix Iriartborderekin ezkondu zenean hartu zuen senarraren deitura, denbora luzean Iparraldean eta AEBetan nahitaezkoa izan den ohitura bati jarraiki.

Euskal Herria Ameriketara ekarri zuen belau-
naldi bateko kide baita Aña. Europako Euskal
Herritik AEBetako beste Euskal Herri tipi
batera pasatu zen Ganixekin ezkondu eta
Ameriketara joan zenean San Frantziskoko
euskaldunen artera, euskara, euskal moldeak
eta euskal bizitzeko manera nagusi ziren giro
eta jendarte batera. Aña, gehienik, euskaraz bizi
izan da Estatu Batuetan, bistan denez urteen
poderioz ingelesa ikasi eta euskal komuni-
tatetik kanpoko lagunak egin baditu ere. Baina
bere belaunaldiak, emigratzearekin, ez zuen
hein batean bere bizimodua gehiegi aldatu,
euskal girotik euskal girora pasatu baitzen,
heiengandik ez oso urrun gauza bera gertatzen
zitzaielarik, esaterako, kopuruz askoz handia-
goak ziren italiar, alemaniar, irlandar edota
txinatar komunitateetako emigranteei.

Aña Etxehandi Eiheralarre (Baxenabarre) Kon-
dixenian jaio zen 1935eko maiatzaren 13an, sei
haurridetarik bosgarrena. Aita, Geaxia, eta ama,
Geaxina (Guecamburu), laborariak ziren eta
azienda kotxia zeukaten. Euskal Herriko beste
hainbat lekutan bezala, Amerika izen ezagutua
zen Etxehanditarren etxean. Etxeko amatziren
bi ahizpa Montevideora joanak ziren eta gauza
bera egina zuten aitaren hiru osaba-izebek eta
haren anaia batek ere. Geroago, emigrazioaren
bideak arrunt Amerika iparraldera bihurtzen
hasi zirenean, kusiak hasi ziren joaten, hasteko
amaren aldetik Gastenaga, Etchamendy eta
Guecamburutarrak. Añak ez zuen orduan
pentsatzen berak ere halako biderik inoiz
hartuko zuenik.

Hamalau urtetan *zertifikata* eskuetan eskola
utzi eta Donibane Garaziko familia batentzat



Eiheralarre Kondixenia, Etxehanditarren sortetxea

Eiheralarreko hilerriko zaharrena da
Kondixeniako hilarria: 1559markatzen du



ari izan zen sehi edo neskame. Ondoren bost urte eman zituen Donibane bereko Laborde ostatuan. Uda batzuetan baita Azkaineko Etchola hotelean ere, eta asteburuetan han-hemenka ibili ohi zen ostatu-lanetan. Etxean ere aritzen zen, ardiekin eta behiekin, Kondixenian gurasoek laborantza tipian segitzen baitzuten. Etxean bizi zen osabak eta anaiak artalde bana zeukaten eta gaztagile ere baziren. Egun, begiak zabaltzen zaizkio Añari, esaterako, urte guztiz maiatzaren lehenean bere etxe ondotik «ardi saldo eta saldoak metaka pasatzen» ikusten zituela kontatzen duenean, «joare ederrekin, pulun-pulun-pulun, larreetarako bidean». «Besta ederra zen hura, gu haurrontzat izigarriko egun ederra», gogoratzen du irria begietan.

Ez ditu Añak sekula ahantzi amatxik sutondoan kontatzen zizkien laminen ixtorioak-eta. Bertsozaletasuna ere etxetik heldu zitzaion. Amaren anaia bat, Martin Guecamburu, bertsolari polita zen, eta baita amatxiren anaia ere, Martin Larramendy, Ezterenzubikoa eta, ama bezala, Eiheralarrera ezkondua. Poliki ari omen ziren, baina garai hartan «apezek geldi arazten zituzten», penatzen da Aña. Kantu-zaletasuna ere etxekoekin ikasi zuen, aitarekin hasteko, biziki maite baitzuen harek kantuz.

Anai-arreben artean, bi anaia zaharragok, Joanes eta Joseph-ek, erlixione bidea hautatu zuten gaztetarik, eta beneditar sartu ziren. Graxiana ahizpa bakarrek, Aña baino hiru urte gazteagoa, gauza bera egingo zuen

berantago, serora edo lekaime sartuz 1960an, ondoren 1962an epe baterako Argentina eta Uruguaira joateko. Han ikusiko zituen aurreneko eta ezagutuko aitaren anaia, eta baita aitatziren anaia ere. Urtetan atxikia zuten gutun bidezko harremana Amerikarekin Kondixenian. Añak-eta gogoan dituzte tipiak zirela Uruguaitik heltzen ziren paketeak, bolada eta urte latzetan Euskal Herriko hainbat familiatan benedikazio suertatu ziren arropa eta lagungarriekin hornituak.

Ezkontzak bizia aldatu

1962an, izan ere, Añaren bizia zinez aldatuko zuen gauza gertatu zen. Urte hartan, Estatu Batuetan lanean hamaika urte pasa ondoren itzuli zen Euskal Herrira Ganix Iriartborde, 35 urteko mehaiindar gazte bat, itzuli ere, urtero bera bezala Ipar Ameriketara lanean ziren hainbat euskaldunek itzultzeko zeukaten arra-



Eiheralarren ezkondu eta berehala abiatu ziren Aña eta Ganix Ameriketara

Aña, hamar urte ez zituela, ahizpa Graxianarekin, Donibanen eginiko argazkian



Añia eta Ganixek 19 urtez gobernatu zuten Des Alpes



San Frantziskoko Des Alpes ostatu euskalduna, Broadway-n. Ostatu aitzinean, euskaldun andana, tartean Ganix (kapela xuriz) eta Añia. Soinujolea Peio Etchebehere arrosatarra da

zoin eta asmo berarekin: esposatzeko euskaldun neska egoki bat atxeman eta harekin itzultzeko Ameriketara. 27 urte zeuzkan Añak, ordurako hainbat aldiz esana zien ezetz antzeko proposamenei. Amerikak ez zuen batere erakartzen. Bai ordea berak baino zortzi urte gehiago zeuzkan mehaiandar harek. Hura maiatzean euskalerriratu eta ekainean ezagutu zuten elkar.

Berrogeita bost urte baino gehiago joan dira geroztik eta Añari oraino dizdira berezia bizten zaio begietan eta irriñoa hazten ez-painetan Ganix ezagutu zueneko aipatzen duenean. «Ezagutu eta berehala lotu ginen. Ni pentsaketan ari nintzen: to, Ameriketara joan beharra, ba honekin joanen nauk, ez du inporta nora, Errusiara, Ameriketara...» Lau hilabeten buruko Eiheralarren ezkondu eta fite abiatu ziren San Frantziskora, gurasoak, haurrideak, lagunak, eta ordura arte ezagutzen zuen unibertsoa giblean utzirik. Zaila izan zen partitzea: Kondixenian gelditzeko aukera hor zen, anaia behinenak hala galdeginik... gurasoen malkoak ere... Ber denboran, batere segurtasunik gabeko abentura zen hasten ari zena, «bizi berri bat, ez jakin nora ari zaren, dena diferente... baina maite duzun presunarekin», horrek balio zuen Añarentzat beste ezerk baino gehiago.

Sukaldari ibilia zen Ganix Iriartborde hamaika urtez San Frantziskoko euskal ostatueta, Euskal Herrira bidaia hura egin aitzin. Mehainen sortu eta Armendaritzen hazia, arreba ere

bazuen Los Angeles aldean, baina Ganix San Frantziskon kokatua zen, hirian euskaldunik eta euskal ostaturik gehien biltzen zuen Broadway auzo edo barrutian. 1866an, hirian dokumentatutako lehenengo ostatu euskalduna —Aguirre hotela— abiatua zenetik, makina bat euskal ostatu ezagutu izan ditu San Frantziskok, tartean Hotel du Midi, Des Alpes, Pyrenees, Obrero, Basque, Hotel de France eta Hotel de España.

Azken hau, izan ere, Ganixen kusi batek, Joanes Bordalampe armendariztarrak, partzuer batzuekin atxikitzen zuen eta hartan lan egitera abiatu zen 1951n Ameriketara Añaren senarra izango zena. 1956an, diru puxkat gorderik, lan hura utzi eta Bordalampe eta haren emazte Katixa iholdiarrarekin partzuer,

Des Alpes ostatua hartu zuen Ganixek. 1962an, Aña iristearekin, erdizka jarriko ziren negozioan Bordalampetarrak eta Iriartborde senar-emazte berriak eta hala segituko zuten 1966an kuple zaharra erretiratu eta Añak eta Ganixek negozioa hartu zuten arte.

Lana eta lana zen Des Alpes-eko eguneroko ogia. Hotelak bazituen orotara hamabost ganbera edo gela, eta euskaldunei luatzen edo errentatzen zitzaizkien bakarrik. Hara biltzen ziren, besteak beste, artzaingoa bukatu eta hirira pasatzen ziren euskaldunak, momentu hartan baxenabartarrak eta Iparraldekoak gehienbat —geroago bilduko ziren nafarrak eta bizkaitarrak, orduan ez baitzeukaten libre artzain kontratua amaitu eta beste gauzetara dedikatzea— edota hilabete oroz andaka Euskal Herritik heltzen ziren gazteak. Izan ere Aña eta Ganix sanfrantziskoratu zirenean, Donibanetik Charles Iriart immigrazio agenteak etengabe antolatzen zituen hegaldi haie-tako batean egin zuten, eta baziren han heiekin berrogei bat euskaldun, horietarik bi kuple edo bikote, neskato gazte bat anaia-ekin, eta gainerakoak mutiko gazteak, oraino goiti zebilen emigrazioaren katearen leku-kotasuna eskaintzen zutenak.

Partitzeko tenorea: Orly-ko aireportuan ameriketaratzeko hegazkinaren beha



«Donibanen bezalako giroa»

zin da hitzez erraz adierazi Eiheralarren edota Euskal Herriko mendialdeko edozein herritan bizitzetik tupustean San Frantzisko bezalako hiri batera bizitzera pasatzeak dakarren kolpea; kolpea, eta gogorra, batetik; baina segida, bestetik. Esan nahi baita bizitoki berriak bietarik zeukan, arrotz eta ezagun. Kolpea, guztia berria duen mundu, inguru eta erresuma batera pasatzea zekarren-eta, zeure hizkuntzak balio ez duen toki batera, gauza askotan zerotik edo zero azpitik ikasten hasi behar duzun egoera batera egokitu beharrarekin, «bertako umeak baino apalago»; baina baita segida ere, hori guztia goxatzeko euskaldunek heien



Euskal ostatua, Euskal Herri txiki bat Euskal Herritik urrun euskaldunen biltoki eta erreferentzia izan dira euskal ostatuak Diasporan

azpi-mundu bat, euren esparru bereixia, ghetto babesle modukoa, Euskal Herri tipiño bat eraiki ohi zutelako Ameriketara zeuden tokietan, kasu honetan San Frantziskon, non hizkuntza nagusia euskara baitzen —frantsesa edo espainolarekin tartekatua batzuetan—, moldeak eta ohiturak Euskal Herrikoak, eta giroa, balioak eta kultura, hain zuzen atzean utzitako gizartean indarrean zeuden berberak. Giro horren gordailu ziren euskal ostatuak, eta horietako batera etorria zen Aña.



San Frantziskoko *ostalersak*: zenbat zor ez daukate milaka euskaldunek heiekin! Ezker-eskuin, Marie Elu, Juanita Etchevers, Catherine Goyhenetche, Aña Iriartborde eta Amelie Sorhondo

Ameriketan euskaldunen artean

Euskal Herrian *amerikano* deitzen dieten beste euskaldun askoren antzera, Añaren bizitza *amerikanoak* euskaldunak zeuzkan protagonista. Hein handi batean ostatura zetozkion bezero edo klienteen inguruan garatzen zen. Ez ziren bezero arruntak, ordea, herri edo eskualde bereko lagunak baizik, lur eta gizarte berri eta arrotzari modurik eramangarrienean aurre egiten ari ziren pertsonak, euren euskal izaera bihotz-begietan. Añaren une gogoangarrienak Ameriketan, jende horien artekoak dira. Irria ezpainetan aipatzen du nola igandero, Broadwayko kantxan pilota partida sorta bukatu ondoren gazte euskaldun andana osta-

tura trumilka etortzen zitzairen, sekulako giroa, «Donibanen bezalako giroa», sortuz. Europan, ibilia zen bera hotel eta ostatueta, baina hemen harremana, tratua eta batasuna besselakoak ziren, «ez zitzaidan iduri etxeiko anderea nintzela». Eta Euskal Herrian bertan, duela hamarkada gutxi telebista ugaltu arte gertatu bezala, pilotak, mus partidek, kantuak, dantzek eta euskal gizarte tradizionalaren ongi pasatzeko moldeak bor-bor eta bizi-bizirik zeuden.

Alegiazko Amerika deitu izan diote batzuek honi, egiazko Amerika ez zela esanez. Beste batzuek, aldiz, benetako Amerika edo benetako Estatu Batuak ikusten dituzte hemen. AEBk emigrazioak eraikitako erresuma izanik, euskaldunekin gertatzen zen haxe bera,



Euskarak beti ukan du presentzia handia San Frantziskoko euskal komunitatean. Irudian, *Basque Cultural Center* (SFBBC) sortzeko 1979ko deia, ingelesez eta euskaraz argitara emana

ondo-ondoan, italiarrekin, irlandarrekin, armeniarrekin, alemanekin eta beste hainbat komunitarekin gertatzen zen; emigranteena oso egoera eta argazki amerikanoa baita, izan ere. Prozesu honetatik pasa diren milioika gizon-emazteek eta euren seme-alaba, biloba eta ondorengoek osatzen dute Estatu Batuak deitzen dugun horren muina.

Zaila da bizimodu bat minus zerotik hastea. Euskaldunen inguruan eta familiak emaniko momentu goxo batzuez gain, bizia lana besterik ez zen. Lan gogorra; hotel eta jatetxe bat eramatea gauza estekatua eta gogorra bada nonahi, Ameriketara halako egoera eta ezaugarrietan are gehiago. Ordu amaigabeak, egunak luze eta gauak labur, familia eta lana bateratu beharra... Hasiera hartaz, urteak pasaturik, Añak nahiago du gauza alegera eta positiboak erreparatu, eta umorez kontatzen du zenbat estonatu eta nola izutu zen, esaterako, San Frantziskon «hainbeste txi-

natar» ikusi zuenean. Bizi ziren Broadway auzoa Chinatown ondoan egonik —Txinatik kanpo munduan den txinatar konzentrazio handiena da hiriko Chinatown—, egunero aniztasunez beteriko mundu berria ari zen deskubritzen Euskal Herrian halakorik sekula ikusi gabeko Aña. Haste hartan harritu zuen beste gauza bat *doggy bag* edo jatetxeetan zeuk eskatu —beraz, erosi— eta bukatu ez duzun janaria poltsa batean eramateko ohitura, Euskal Herrian orduan eta egun ere askori oraino harrigarria gerta dakiokena.

«Hastean ez nuen konprenitzen hori, eta gero, bo, harek pagatua badu, nahi duena egiten ahal du harekin eta, bistan da, zendako ez etxera eraman eta han jaten finitu, hala nahi badu... Baina lehenean izigarri txokatu ninduen.» Edota xingarra eta ardoarena. «Heldu eta biharamunean, goizean jaiki eta ikusi nituen Urruty bi anaiak Wyomingdik herrira artzaingotik jinak. Askaiten ari ziren, xingarra eta

arraultza jaten zuten... kafe kopa batekin. Hori ikusirik, zinez harritu nintzen: xingarra eta arraultza jaten dute... arnorik gabe? Kar, kar, holako gauza batzu.» Irri egiten du orain honelakoak oroitzera, baina kultura-talka tarteko nigar frango isuritakoa da, egokitu eta bertako molde eta manierak ikasi eta hein batean berekotu zituen arte. Ezin komunikatzeak penatzen zuen partikularzki: «Lengoaia mintzatu ahal ez izanak, ororen buru bizimodu arras diferenteak...» eta Euskal Herrian xaharturik ziren aita-amaren urrun egoiteak. «Berantago, ama eritu zelarik, amaren laguntzera joan nintzen. Gero, triste izan zen aita bakarrik uztea... Gauza horiek ez dira pentsatzen jiten diren artio... Urruntasun horrek izigarri egiten du.»



Aña, kultura eragile eta euskarazko antzerkilari Euskal Herrian; bigarrena da, ezkerretik lehenengo lerroan, 1957an Pierre Larzabalen «Herriko Bozak» antzeztzen Eiheralarren

Aña, kultur eragile eta euskarazko antzerkilari San Frantziskoko Euskal Herrian, Larzabalen «Ibañeta» antzeztzen. Euskaldun askok ez zuten batere atzean utzi euskara eta euskal giroa ameriketaratu zirenean, eta euskal jarduna inguru berrira egokitu zuten

Xalbador eta Mattin bertsolariak

Aña San Frantziskora heldu zelarik, bi urte zahar zen *Basque Club* delakoa, 1960an sortua; sortu ere Xalbador eta Mattin-ek urte hartan Kaliforniara egin zuten bisitan gertatutakoaren ondotik. Izan ere, 1960ko ekainean, bi bertsolariok iritsi zirelarik, euskal klubik ez zegoen oraino hirian eta bertako euskaldunek frantses piknik batera gonbidatu zituzten. Partaideak euskaldunak eta biarnesak ziren gehienbat. Piknikean, euskaldunek mikroa eskaini zieten gonbidatuei, bertso batzuk eskaini zituzten oholtza gainean. Bertsotan ari zirela norbaitek argindarra moztu eta partaide euskaldunek biziki protestatu bazuten ere saioa modu txarrean eten egin behar izan zen. Asko zinez samurtu eta honelakorik ez





San Frantziskoko irail inguruko euskal festaren afixa, ardura bezala euskara eta ingeleza tartekatuz

zela berriz gertatuko agindu zuten. Gau hartan bertan Broadway-n, Claude Berhouet donazahartarraren 'Hotel de France'n' bildurik, ezarri ziren San Frantziskoko egungo *Basque Club* edo Euskal Etxearen oinarriak.

Baratzegile edo lorazain zen euskaldun haietako askoren lana. Bakoitzak hainbat bezero zeuzkan eta heien etxeetako baratze edo jardinen mantenimenduaz arduratzen zen. Ez zen arraroa anitzek, langile gisa aritu ondoren, urte gutiren buruan beren gain hastea, beste euskaldun batzuk edota, geroago, langile



Lagunekin musean Euskal Etxean. Aña, Dominique Berhan (ondoan), Michou Chiramberro (laguna) eta Henry Boson. Beste euskaldun askok bezala, maite du Añak musean aritzea

mexikarrak kontratatuz. Hori izan da joan den mendeko bigarrean erdialdean San Frantziskoko euskaldunen artean okupazio ezagunena. Gehientsuenak baxenabartarrak, nafarrak ere bildu ziren, eta baita bizkaitar batzuk ere. Denbora batean emazteetako batzuk, arropa xuritzen edo garbitzen ere ari izan ziren, hiriko *laundry*-etan, frantses edo biarnes nagusientzat beharbada. Oro har mintzatzearen, horixe zen bertako euskaldunaren soslai: gaztea, gizona, Euskal Herrian sortua, baxenabartarra eta baratzegilea. Halako ezaugarriak zeuzkan komunitatera bildu zen Aña. Gizon-emazte multzo horrek gidatu eta bideratu ditu azken urteotan Kalifornia iparraldean euskal komunitate antolatua eman dituen pausoak.

Dantzari taldea

Euskal Klubak 1960ko urri-azaroan legeztatu zituen paperak eta, urtero ekainean egiten hasiko zen bere piknik propioa antolatzearekin batera, pixkanaka dantzariak, korala, pilota, musa, klika eta antzeko ekimenak garatzen hasi zen. Lehenengo ekimenetako bat Zazpiak Bat dantza taldea izan zen, 1961ean, Juan Telletxea lesakarra tarteko, hau 1962an euskalerriratu ondoren lekukoa Pierro Etcharren uharte-garaztarrek harturik; San Frantzis-



Batzuetan irabazle ere musean. Argazkian Aña bere partzuer Marie Elissetche ortzaiztarrarekin, San Frantziskoko Euskal Klubeko txapeldun geratu zenekoa

koko Gazteak haurren dantza taldea, Michel Oyharcabal irisartarra, Etcharren bera eta Christinne Maysonnave bertakoaren eskutik; korala ere hasi zen, Jeanne Mazeris buru; eta Frederic Fuldain bidarraitarrak klika abiarazi zuen, azken hau 1964an, Alphonse Achertogaray baigorriarra zuzendari.

Aña iritsi orduko bazen, beraz, «dantzari taldea, baita ere koral tipi bat. Dantzan, Pierro Etcharren mutiko gaztea zen orduan, eta bazen grupa bat egun amatxituak direnak... Anita Arduain, Denise Ourtiague, Bernadette Iribarren... Pilotaririk ez zen biziki. Ganixek [pilotazalea eta pilotari saiatua izaki] ez zuen orduan pilotarako lagunik biziki. Gero agertu zitzaizkion Frederic Fuldain eta Ferdinand Tapia urepeldarra. Baziren jiten zirenak Chinotik, Fresnotik... Chinotik, Agustin Artesia ari izan zen anitz Ganixekin...», dio Añak.

Kantua, bertsua, musika eta dantzarekin batera pilota izan da euskaldunak munduan bidelagun eraman izan duen zaletasun propio eta berezia. Euskaldunak, egon den AEBetako bazter guztietan eraiki ditu kantxak XIX. eta XX. mendeetan: mendebaldean, gutienez, Wyoming, Utah, Colorado, Nevada, Arizona, Washington, Oregon, Idaho eta Kalifornian. Pilotarekiko alimaleko, egundoko afizio horrek ardura edo sarritan komunitate osoa mugi arazi du, bide batez euskalduntasun orokorraren mesedetan. San Frantziskon, esaterako, pilota da *Basque Cultural Center* (BCC) eraikundea eta bere eraikin dotorea, egun ber-



Aña eta Ganix biloba edo semetxi Gene eta René-rekin, 2002ko NABO Biltzar Nagusian San Frantziskon muntatu zen euskaldun ohiko sukaldean

Aña eta Ganix, San Frantziskoko bikote edo kuple on errotik euskaldun bat



tako euskaltasunaren aterpe direnak, xutitu izanaren arrazoin eta motorra.

Pilotaren historia kaliforniarra lehenago hasia zen ordea. Kalifornia osoarekin batera, 1849an Estatu Batuen eskuetara pasatu zen hiri honetako euskaldunak beti aritu izan dira pilotan, besterik ezean horretarako murru edo pareten bat egokitu eta harekin moldatu behar izan badute ere. Euskaldun batzuk bildu eta horretarako aukera izan dutenean, pilotan ari izan dira. Estatu Batuetan, doaike aipa daiteke pilota euskaldunen kirol nazional gisa, lagun banaezinak izan baitira.

Lehenengo kantxa dokumentatua San Frantziskon, 1849an Montevideotik bertara emi-

gratu zuen Juan Miguel Aguirrek eraiki zuen 1860. hamarkadan, Dupont Place-n. Aguirrek berak eraikiko zuen 1866an Powell kalearen 1312an 'Aguirre Hotela' bezala ezagutua den bere ostatu famatua, hiriko euskaldunen erreferentzia. Ez zen hura izan, ordea, bertako plaza bakarra. Juan Francisco Yparraguirre etxalartarrak, 1893an Powell Street eta Broadway kale gurutzean 'Hotel Vasco' ize-nekoa sortu zuenak ere pilotalekua erantsi zion hotelari. Hotelak bezeroei eskaintzen zien zerbitzu estimatua zen kantxa, jende erakargarri. Ostatuetakozati zein aparte, pilotazaletasuna eta pilotalekuak beti egon dira present San Frantziskoko euskal komunitatearen bizian.

Sekulako euskal giroa

ña iritsi zenean, kantxarena arregura eta kezka zen euskal komunitatean. Hotel de Españaren gibleko pareta desagertua zen ordurako, eta pilotariak Stocktonera —urruxe— joaten ziren pilotan artzera, Ospital baigorriarrak zeukan ostatuaren ondora. Han egiten ziren txapelketa edo *turnamentak*. Geroago komunitateak baimena lortu zuen San Frantziskoko parke batean, Larkin eta Broadway kaleen gurutzean, murru bat goititu eta hura nolabaiteko kantxa bihurtzeko. «Hor egiten zituzten partidak, baina parkea zelarik ez zen beti libro, igande goizetan baizik. Euskal Herritik jinak ziren gazteen artean baziren pilotariak eta



San Frantziskoko *Basque Cultural Center* gaur egun. Lehenengo mementuan pario edo apustu handia izan zena, Aña & Ganix eta gisa bereko beste hamaika euskalduni esker irabazi zen. Jatetxe arrakastatsuko irabaziak euskal kulturaren sostengatzaile izateak ekar dezake geroa

onak, eta San Frantziskon sortu gazteak ere poliki zaletzen hasiak ziren.» Sekulako euskal giroa sortzen zen. «Gure generazione guztia, hasteko, hor zen. *Turnamentak* Chino eta Bakersfieldeko pilotarien kontra egiten ziren eta alimaleko jendetza jiten zen.»

Hala gertatu zen hainbat urtez, baina Hiriaren planak bestelakoak ziren eremu harentzat, eta kantxa eta eraikin hura 1979an bota zituzten, euskaldunak berriz ere ezer gabe utziz. Pilotalekuarena eta biltoki bat izatearena gai errepikakorra zen ordurako, egoitza fisikoren jabe ez zen San Frantziskoko *Basque Club* edo Euskal Etxearen baitan. Garestia izan arren,



Auzolanaren emaitza, 25 urte bete ditu 2007an SFBCCek. Argazkikoa ez da Ezterenzubi edo Donibane Garazi, San Frantzisko da

pilotazaleek zinez nahi zuten klubak pilotaleku bat egin edo eros zezan. Gaia behin eta berriro planteatuta aldeko botorik aski lortzen ez zuela ikusirik, elkarteko lehendakari zen Franxoa Bidaurreta esnazuarra berriz ere saiatu zen, baina oraingoan, lursaila edo jabegoak begiratzen hasteko proposamenak berriro sostengu nahikoa bereganatu ez zuela ikusi ondoren, biltzar berezi batera deitu zituen pilota plaza egitearen alde zeuden euskaldunak.

Hirurogei bat pertsona bildu ziren. «Baziren ahan txu hogei urte ari zirela kalapitan klubarekin deusik lortu gabe eta proposatu zuten

kantxa nahi zutenek klub berri bat hastea», laburbiltzen du Añak. «Franxoa Bidaurreta eta Jacques Unhassobiscay laparra bezala lotu ziren behar zela egin eta ados gelditu ziren, eraikuntza lana bazkideek berek egingo zutela eta klub berriko bazkide bakoitzak mila dolar ezarriko zituela, hasteko. Gero Jean Gorostiaquek harrapatu zuen lursaila South San Frantziskon, eta hor abiatu zen.» Tokia egiten hasita, ez bakarrik kantxa, baina barnea, sukalde eta biltokia ere egitea deliberatu zuten.

Honela sortu zen egun egoitza aldetik be-
deren Estatu Batuetako Euskal Etxerik handiena den kluba. Erabateko auzolana izan zen



San Frantziskoko Euskal Etxeko (SFBC) euskaldunek, AEBetako beste leku batzuetakoekin batera, sortu zuten NABO 1973an. Argazkian, NABO bilera San Frantziskoko *Basque Cultural Center*-en



Basque Cultural Center-eko dantzariak, klika, korala eta autoritateak, Gabarino alkatea barne, euskal etxearen 25. urteurrenaren kariatara bildurik

proiektu osoa, pilotarekiko eta euskal ohiko moldeekiko maitasunak eta, lanean jartzen delarik, euskaldunen borondate sendo eta tematiak eman dezakeenaren erakusle. Baina hirurogei lagunek mila bana dolar, 60 mila sos besterik ez ziren, eta lehenengo kalkulek gutenez 600 mila kostatuko zuela markatu zuten [azkenean bikoiztu egin zen ia]. «Beraz, hasi ziren sos gehiago galdegiten. Gero berriz eman genuen beste puxkat, baina oraino ez zen aski», kontatzen du Añak. Guztiaren atzean, arazoa zen bankuek ez zutela garbi ikusten delako pilota joko bati tokia eraikitzearen eta orduan eremurik finena ez zen South San Frantziskoko parte hartan egoitza eta jatetxe bat zabaltzearen bideragarritasuna.

Euskaldunek, baina, argi zeukaten zer nahi zuten. Borondate tinko eta kemen hori zen heien indarrrik handiena eta segitu zuten ahalegin berriak eskatzen komunitateari. «Mementu hartan bankuek %17 pagatzen zuten dirua uzteagatik eta klub berriak maileguak galdegin zizkien bazkideei, %6a pagatuz.» Eta segitzeko modua lortu zuten. Diru zerbait bildurik, ordea, «urtebete egon behar izan genuen baimenen beha eta hartan materiala joan zen goiti sekula ez bezala», orroitu da Aña. Parioa tenkatuz zihoan baina euskaldunen erantzunak atxikia segitzen zuen. Une berezietan, komunitateak ere modu berezian erantzuten jakin zuen, eta Jean-Pierre Elizondo izeneko xuberotar batek, esaterako, hamar mila dolar utzi zituen, «eta gero instant



South San Frantziskoko Udaletxeak ikurrina ipini zuen aste osoan bere balkoi nagusian SFBCCen 25. urteurrena ospatzeko 2007ko otsailean

baten buruan beste 200 mila», guztia, gainerako maileguak bezala, «ahal zelarik» itzultzeko. Bakoitzak bere indarren eta nahikeriaren arabera erantzuten zuen.

Komunitate-ahalegin horretan, Jean Gorostigue eiheralartarra aritu zen eraikile-kontraktur eta gainbegirale orokor gisa, eta Jean-Baptiste Jaureche baigorriarra egun guztiz han zen, eraikile, hainbeste bolondresen lana koordinatzen, Joseph Gastantchoa jatsuarra



AEBetako euskal apez katolikoak, erlijio zein euskal ikuspuntutik, biltze, berotze eta pozte lana egin du. 25. urteurreneko mezan, aita Tillous (egungo omonierria) eta aita Cachenaute (argazkian) aritu ziren San Frantziskon



AEBetako eta Euskal Herriko euskal musikarien aireek denbora goxoak pasa arazten dituzte San Frantziskoko Euskal Etxean

eta Guillaume *Bill* Etchegoin ezterenzubiarra lankide. Batzuk lana eskainiz, beste batzuk sos handiago edo txikiagoa, guztien ahaleginari esker urte baten buruan plaza altxatua izan zen. Sostengu ekonomiko aldetik, orotara berrehun bat jende eta familia engaiatu ziren eta aitzinarazi zuten proiektua. Ez zen ahalegin makala izan. Eraikina bukatu samarra zegoen 1981 hondarrean eta inaugurazioa 1982ko otsailean egin nahi zen.

Ordurako Aña eta Ganix ostatua zeukatenean baino lasaiago bizi ziren. Ganix 1956an hasia zen Des Alpes-en eta, bertan hainbat urtez lan eginik, 1975ean saldu zieten Ciriaco eta Elaine Iturriri, eta gure bikotea, urte batzuk lehenago hiriko beste eskualde batean partzuer hartua zuten motel batera pasatu zen, geroago hau ere saldu eta lan ez hain estekatueta ibiltzeko: Ganix tindatzaile edo pintore eta Aña denda batean publiko aitzinean.

Pilota, euskal hitzordua

Betidanik ibiliak ziren Iriartbordetarrak pilotaren inguruan. Ganix pilotari gisa, hasteko, eta hari segika Aña. Aipatua dugu Broadwayko azken kantzaren garaian pilotazaleak nonbre handian biltzen zirela igandetan, lehenik pilota partidak ikusi eta ondoren ostatuan elkarretartzeko. Pilota medio, euskal hitzordurik handiena eta politena hura zen jende askorentzat, aste osorako emeia eta indarra ematen ziena. Giro haren barnean partaide ziren, eta ez edonolako, Ganix eta Aña, Alpeen garaian —euskaraz, askotan, Alpea edo Alpeak esaten zioten ostatuari— eta baita barraren alde hura utzia zutenean ere.

Baina pilotaleku eta euskal eraikin berriak, barra eta jatetxea behar zuen ukan, «eta guri erran zukuten», gogoratzen du Añak. «Guk ez genuen hartu nahi halako erresponsa-

bilitaterik, baina baietz eta baietz, eta hon-darrean lehenengo bi hilabetez hartuko ge-nuela erran genuen, hura martxa arazi eta gero lekukoa beste batzuei pasatuko geniola, horretan gelditu ginen.» Eta heldu zen jate-txearen lehenengo erronka. «Deliberatu zen lehenik menbru edo bazkideendako inau-gurazionea eginen genuela. Gu data hura baino zortzi egun lehenago sartu ginen. Etxe-aren garaiz finitzeko, langileak goizean goi-zik jiten ziren eta arratsetan berant artio geratzen. Larunbatean zen inaugurazioa eta ostegun arratseko finitu zuten [eraikuntza] lana.» Baina lursail guztia zikina, lohiz, eta obra hondakinez betea zen oraino. Ostiral goizean «sekulako andana bat baratzegile eta *kontrak-turak* jin ziren, troka edo kamion handiekin, eta guztia garbitu zuten oren zenbaitetan». Talde-lanaren indarra.

«Plazera zen ikustea trokak bete partitzen; batzuk betetzen zituzten, eta kanpoan troka gehiago zeuden beha, noiz sartuko prest, gauzen ekartzeko, mahai eta kaderak, baxerak, edariak, jatekoak, denak lerroan gauzak uz-teko.» «Ostiral arratseko jin ziren berriz baratzagileak heien emazteekin eta baxerak-eta kaxetatik atera eta guztia ikuzi zuten. Larunbat goizean gizonek mahaiak garbitu eta mahaiak eta kaderak ezarri zituzten, eta emaz-teek azieta edo platerak. Hura zen anbianza ederra», biziberritzen du Añak, guztia be-gien aitzinean izango balu bezala. Igandean, guztia zen etxekoentzat prest. Lehenik ehun bat haurri eman zieten bazkaltzen, nagusiak



Euskal kulturaren bertako geroak arreguratuta, euskaldun talde batek –Aña tartean– *Basque Educational Organization* sortu zuten San Frantziskon, euskaldunei buruzko ezagutza areagotzeko gizarte amerikarrean

harreragunean eta barran *sozializatzen* ari ziren bitartean; ondoren, laurehun bat na-gusiri. Zerbitzariak, guztiak bolondres. Alai-tasuna eta bozkarioa begi-bistakoak ziren. «Ezin sinetsia zen hura, bageniela azkenean gure tokia.» «Hau gure etxea duk», pentsatu zuela kontatzen du egun Añak, hunkiturik.

Astebete berantago sartu ziren ofizialki lehe-nengo bezeroak. Eraikin berrian sartzen zenak sala batzuk eta pilotalekua harrapatzen zuen ezker, eta jatetxea eskuin, polito egina, leku duina. Guztia prest egotea, jende askoren laguntzaren emaitza zen, detaileetan ere; telefonoak jartzeko, esaterako, telefono kon-painian ari zen jatorri urepeldarreko Noel Goyhenetche kaliforniarraren lankidetza izan zuten. Yvette Urruty lohizundarrak eginda-



Geroari so ari zaizkio euskaldunak. Egun haur eta gazte direnek ekarriko diote geroa Añaren belaunaldiak hasitako bideari.
Argazkian, 2002ko NABO Biltzar Nagusia San Frantziskon



Bertsolari euskal amerikarrak berezko osagaia dira San Frantziskoko euskal komunitatean. Ezker-eskuin, Franxoa Bidaurreta, gai-jartzaile, eta lau bertsolari: Johnny Kurutxet, Jesus Goñi, Gexan Alfaro eta Martin Goikoetxea. Argazkian falta, Jesus Arriada

koak ziren paretetako euskal margo eta edergarriak. Euskal etxeko tximinia dotorea, egiazko euskal sutondo bat, zazpi probintzien armarrak egurrean ederki landu eta koloreztatuta, Frederic Fuldainen abilezia eta maitasunaren dohaitza izan zen. Hornikuntzetan ere, «*bisnesa* berria zelakotz furnitzaileek ez zuten nahi hilabete hondarrean paga genezan, eta mementuan behar zen egin, haragi konpainian salbu; han baziren bi ortzaiztar lanean, Xanot Acheritogaray eta Michel Arduain, eta haiek medio nahi genuen haragi guztia ukaiten ahal genuen». Geroztik ere eskuarki gertatu ohi den bezala, Euskal Etxearentzat egindako hainbat gauza, bihotzez

eginak, ez ziren diruz eros edo ordain daitezkeen horietakoak.

Basque Cultural Center-eko jatetxea arrakasta izan zen haste-hastetik. Hasiera zen zailena eta ongi atera zen. Aña eta Ganixek lau hilabete egin zituzten, adostutakoa baino bi gehiago, eta bidea markatu zioten geroztik ospea eta bezereria sendotu besterik egin ez duen jatetxeari. Inaugurazio ofizial zeremoniotsu bat ere egin zen, urte bereko martxoaren 27-28an, South San Frantziskoko alkatea eta agintariak tartean. Bederatziehun lagun bildu zituen larunbatean eta beste hainbeste igandean. Klika, dantzariak, txistu-



2003an, *Zazpiak Bat Basque Club*-ek (SFBC) ohorezko lerroan paratu zituen Aña eta Ganix Iriartborde. Ganix bi urteren buruan, 2005eko uztailaren 5ean zendu zen

lariak, bertsolariak, korala eta pilotariak bi egunok edertzen aritu ziren. Bi himno nazionalak jo ziren, banderak goititu eta Gernikako Arboren kimu bat ere landatu zen, Carlos Urrutia bazkideak propio lortu eta bertan landatzeko hazia.

Hogeita bost urte joan dira geroztik. Gehienbat pilotak eraginik sortu zen etxe honek, ekonomikoki aurrera egiteko bidea atxeman du jatetxearen arrakastarekin. Euskaldunek euren toki propioa izan dute San Frantziskoko Badian eta pilotarekin zerikusia daukaten ekitaldiak *Basque Cultural Center*-i (SFBC) badagozkio, *Basque Club* (SFBC) delakoak korala, dantzariak, klika-eta bere

barne atxiki ditu. Guztien gertaleku eta biltoki dira BCCren instalazioak eta bi elkarteotako bazkideetako asko amankomunak dira. Izan ere, San Frantziskotik kanpo anitz jendeak ez daki etxe honetan bi klub elkarte daudenik.

Egoitza edo erreferentzia fisikoa gauza inportanteak dira jendea bildu eta elkarte bati eusteko eta, euskal hotelak azken urteotan desagertzen joan direlarik San Frantziskon —gaur egun ez da bat bera ere gelditzen— funtzio bilgarri hori BCCk bete du. Bertan egiten dira San Frantziskoko kultura talde guztien errepika eta biltzarrak.

Ostatuak eta, gaur egun, *Basque Club* edo Euskal Etxeak dira Estatu Batuetako historian euskaldunek euren izaera, kultura eta tradizioak gordetzeko eraiki dituzten erakunde nagusiak. Batean zein bestean ibili izan da buru-belarri sarturik Aña Etxehandi Iriartborde. Europako Euskal Herriaren ordeztu, San Frantziskora ekarri eta bertan landu zuen Euskal Herria izan du berak bizitzeko testu-guru nagusia. Eiheralarren antzerkizalea bazen, Ameriketara ere hala izan da, eta sorterrian zein San Frantziskon antzeztu izan du euskaraz, Telesforo Monzonen eta Piarres Larzabalen obrak esaterako. Eta hori egin ahal izateko, antzerki taldea behar da, baina baita ere publikoa, euskaraz irri eta negar egiteko gauza den publikoa, eta hori Eiheralarren bezalaxe lortu du San Frantziskon.

Basque Educational Organization (BEO) erakundeko partaidea, San Frantziskoko Elgarrekin



2006ko azaroan, *Society of Basque Studies in America* delakoak San Frantziskoko lau euskaldun ohoratu zituen: Frederic Fuldain, Franxoa Bidaurreta, Johnny Kurutxet, Aña (Etxehandi) Iriartborde eta Jacques Unhassobiscay



San Frantziskoko kultur eragile talde bat: Xabier Berrueta, Nicole Sorhondo, Yvonne Hauscarriague, Aña Iriartborde, Philippe Acheritogaray, Franxoa Bidaurreta eta Esther Bidaurreta. Kultura eta gazteak dira geroa

koraleko kantari, ostaliersak, musulmanak, antzerkigile, kulturaren aldeko langile, euskaltzale atxikia, gauza asko esan daitezke Añari buruz. Baita artxibari ere, Euskal Herrian hasi eta Ameriketara segitu duen artxibo ederra baitauka euskaldunekin eta euskal kulturarekin zerikusia duena: zernahi euskalduni buruz argitaratu eman diren artikulak, paperak, afixa-eta biltzen joan da urtez urte, eta ber denboran filmak, bideoak eta argazkiak ateratu ditu San



Aña bere bi bilobekin, Gene eta René Iriartborde, San Frantziskoko euskal belaunaldi berriak

Frantziskon eta bere inguruan egin diren aindana bat euskal deialdi eta ekitaldietan.

Ahal izan duen neurrian euskara klaseak lagundu ditu eta gazteei parte hartzeko aukerak ematearen alde egin du eta egiten du lan, Aña beti ere geroa eman nahiz Ameriketara, bere seme eta biloben lur honetan, berak Euskal Herritik ekarri zituen molde eta balioei, eta euskal kulturari orohar. San Frantziskoko euskalduna da Aña, agian bere bidea segituko duten euskal kaliforniarren ama eta amatxi. Hazia erein da eta horretan lan ederra egina du Añak, bere belaunaldi amerikarreko beste hainbatek egin duten bezala, apal-apal eta azantza handirik gabe.



Urteetan zehar Aña biltzen joan da paperak, afixak, argazkiak, egunkari-mozketak, filmeak... Berak bildutako artxiboari esker idatz eta dokumentuak daitezke azken hamarkadetako San Frantziskoko euskal historia. Argazkian, filmatzeko kamerarekin, irudi batzuk aita Martxel Tillousekin ikuskatzen

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Franxoa Bidaurreteri
- Johnny Kurutxeti
- Martzel Etxehandiri
- Phillipe Acheritogarayri
- Xabier Berruetari
- Idoia Salaburu Urrutyri
- Jean Baptiste Sapararti
- Aña Etxehandi Iriartborderi
- Pierro Etcharreni
- San Frantziskoko euskal komunitate osoari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2617-4 (Lan osoarena)
978-84-457-2621-1

L.G.: BI - 2587-07

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística